

**Maite
dutzen
Tolosa**

ehbildu

Herri programa

2023-2027

EGINGO DUGU.

Gobernantza kooperatiboa

Gure egiteko modua Gobernantza Kooperatiboa da; beraz, baliabideak jarriko ditugu, herritarrak ahaldu eta eguneroko udal politikan erabakimena izan dezaten.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Egitura komunitarioak: Zaintzan, energian, elikaduran, kulturean, auzoetan...
- Herri Behatokia: Ausaz hautatutako herritarrez osatua, ekarpenak egin eta Gobernu Planaren jarraipena egiteko.
- Auzo Ordezkarien Mahaia: Auzotarrekin elkartu, haien eskaerak jaso eta Udalak egindakoaren berri emateko. Auzotarrek adierazitako premiak eztabaidatu, lehentasunak finkatu, eta elkarrekin erabakiak hartuko ditugu.
- Landa auzoekin batera trataera berezitua behar ote duten aztertuko dugu.

Etxebizitza eta hirigintza

Hainbat legek esplizitoki aitortzen dute herritar guztiok daukagula etxebizitza egoki eta duina izateko eskubidea, eta botere publiko guztiei agintzen diete beharrezko baldintzak eta arauak ezar ditzatela eskubide hori benetan gauzatu dadin.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Tolosaren egungo eta etorkizuneko etxebizitza beharrak identifikatzeko azterketa soziodemografikoa: eskaria, dagoen eskaintza eta egungo zein etorkizuneko etxe huts kopurua.
- Bizigune atsegin eta erosoak sortu, eta, batik bat, alokairurako etxebizitza sozialak eraiki.
- Hutsik dauden ehundaka etxeak alokairuan merkaturatzeko, laguntza juridiko eta ekonomiko eraginkorrak bideratu, eta ekimen honetan parte hartzen ez duten bigarren etxebizitza hutsak zergapetu (EAEko 2015eko etxebizitza legea betez).
- Etxebizitza hutsen kopururik altuena Alde Zaharrean dagoenez, etxebizitza politiketan ere trataera berezia emango diogu auzo honi.
- Amarotzeko sustapen berria berraztertu.
- San Esteban auzoaren mantenua eta eraberritzea: Garapen urbanistiko orekatua egiten den bitartean, auzoa duindu eta atseginagoa bihurtu, udal jabetzako orubeak txukunduz eta azken urteetan egin ez diren mantentze lanak burutuz.
- Etxebizitza sozialak zein dotzionalak garatzeko aukerak aztertu: Batzoki zaharra, Telefonikako eraikina, Santa Klara eta Sakramentinoak...

Hirigintzan hobekuntzak:

Zumardi Txikia herritarrentzat berreskuratu bere izaera mantenduz eta interbentzio arin bat eginez. Bentaundin, oinezkoen bidea sortu espaloia ireki eta bide gorriaren arteko tartean. Geltokiko plazaren etorkizunerako azterketa. Iurramendi ibai ertzeko pasealekuaren konponketa Herriko kaleen eta altzarien mantenu plana. Ondarearen katalogo material eta inmateriala. Elkano kalea, Montesku (apeaderoaren gainaldea) eta Izaskun auzoa hobetzeko azterketa. Hiri Antolamendu Plan Orokorra berri. Azpiegitura publikoak hobetu (komun publikoak, bizikleta aparkalekuak, eserlekuak...). Ordenantza fiskala berraztertu, obra baimen tasetan irizpide sozialak txertatzeko. Etxebizitzetan obra txikiak egiteko izapideak azkartu.

Alde zaharra

Alde Zahar Historikoak bizitzeko atsegina eta erakargarriagoa bilakatuko duen esku hartze integrala behar du; horretarako, Auzotarren Jarraipen Batzordearekin batera Plan Estrategikoa jarriko dugu martxan.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Urbanistikoki duindu. Etxebizitza hutsak birgaitu, bizilagunentzako zerbitzuak eskaini eta hondamendi egoeran dauden eraikinak erosi, eta, bertan, alokairura bideratutako etxebizitza sozialak egin, edota orubeak libre utzi aisialdi gune berriak sortzeko.
- Lokal hutsak zabaldu (ikasgela zaindugabeak, bizilagunentzako trastelekuak, jarduera ekonomiko berrientzat eskaini prezio eskuragarrian, bizikleta aparkalekuak...). Alde zaharreko barruko patioak berreskuratu eta ireki, irisgarritasuna eta argiteria hobetu, eta aisialdi guneak zabaldu.
- Eraikinak birgaitzeko diru laguntzen ordenantza Alde Zaharrera egokitu eta horiek bideratzeko aholkularitza zerbitzua eskaini.
- Alde Zaharreko jarduera ekonomikoa suspertzeko estrategiak garatu, berriz ere Tolosako merkataritzaren motor nagusia izateko.
- Alde Zaharreko eraikin eta espazioen historia berreskuratzeko proiektua.
- Rondilla kalea bizigarriagoa egin eta oinezkoei protagonismo gehiago eman.
- RC2 (Laborde-Labayen) gunea berreskuratu. Erreka ondotik paseoa eraiki Santa Maria bitarte, eta ingurua duindu.
- Zerkausiko terrazaren erabilera berraztertu.
- Apeaderoaren irisgarritasun proiektuari bultzada eman.

Aparkalekuak

Aparkalekuen arazoari modu integralean heltzeko azterketa sakona burutuko dugu.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Zonalde bakoitzeko Aparkaleku eta ibilgailu kopurua zehaztu zein arazo gehien sortzen diren gune zein momentuen identifikazioa.
- TAOa berrikusi: zonaldeak, prezioa, txartel kopurua etxe bakoitzeko...
- Lur azpiko aparkaleku hutsak identifikatu eta horiek alokatzeko aukerak aztertu. Erabilera publikoko lur azpiko aparkalekuen eskaintza bereziak aztertu (Alde Zaharreko bizilagunentzat, merkataritza zein erosleentzat...).
- Aparkaleku gehiago eskaintzeko aukerak aztertu: aparkaleku modularrak, Zubizarretako orubea, Arramele ermitaren atzealdea, San Esteban, Usabal, Larramendi/Santa Luzia.

Mugikortasuna

Beharrezkoa da mugikortasunaren paradigma aldatzea, Tolosa atsegina eta jasangarriago bilakatzeko (Tolosako kutsaduraren %70 trafikoa eragiten du).

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Mugikortasun plana sozializatu, herritarron artean hori garatzeko aukera errealak aztertu, eta, behar izanez gero, moldatu.
- Tolosan oinez mugitzea sustatu: Neurriak hartu, segurua eta erakargarria izan dadin.
- Bizikletaren erabilera bultzatu: Bide gorri sarea birpentsatu; oinezko eta txirrindularien arteko bizikidetzak bermatzeko neurriak hartu; bizikleta eta patineten erabilera arautu; bizikleten aparkaleku eskaintza handitu eta dibertsifikatu, aparkaleku estaliak jarri eta lokal hutsak aparkaleku izateko egokituz.
- Motordun ibilgailuak eta bizikleten arteko bizikidetzak bermatzeko neurriak hartu, eta, ahal den neurrian, bidearen erabilera partekatua bultzatu.
- Ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzeko kanpainak: Ibilgailua partekatzeko esperientziak aztertu (carsharing) eta APPa sortu; mugikortasun jasangarria bultzatzen duten ekintza indibidualak saritu (lanera oinez, bizikletaz, garraio publikoan edo ibilgailu partekatuan joatea...).
- Kalitatezko garraio publikoaren aldeko apustu sendoa: Maiztasuna handitu, doakotasuna.
- Autobus geltokien optimizazio eta berrikuntza.

Energia

Tolosa Klima 2050 eta EH Bilduren Energia estrategia

Energiaren gaian ere, antolatzeko eredu berriak bultzatuko ditugu. Multinazionalen eredu merkantilista atzean utzi, eta herritarron kontrol maila handiagoa bultzatu nahi dugu, burujabetza energetiko ahalik eta altuena helburu.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Energia plan estrategikoa: Tolosan energia berriztagarriak sortzeko aukeren azterketa (Pixuagako ur-jauzia, Urkizuko depositua, errota, fotoboltaikoak...) eta horiek garatzeko estrategia, kontsumoaren aurrezpena eta efizientzia eta pobrezia energetikoari aurre egiteko urgentziazko ekintzak zein neurri estrukturalak.
- Energia komunitatea sortzeko prozesua abiatu, hiru arlo garatuz:
 1. Energia kontsumoaren murrizketa.
 2. Energia ekoizpena: Bazkideen energia beharrak asetzeko, ekoizpen berriztagarriko proiektu ezberdinak garatu.
 3. Mugikortasun iraunkorra.

Klima aldaketaren ondorioak: lurraldearen erresilientzia

Krisi klimatikoaren ondorioz etorriko zaizkigun lehorte eta euri jasa bortitzen eraginei aurre egiteko, natur ingurunearen erresilientzia handituko dugu.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Uraren ziklo osoa zaintzeko premiazko esku hartzea: Gipuzkoako Urak-ekin elkarlanean, ur baliabideen eta azpiegitura hidraulikoaren (akuifero, iturburu, ur-biltegi eta hoditeriaren) identifikazioa, optimizazioa eta konponketa.
- Ur jasa handien eraginez sor daitezkeen arriskuen azterketa (uholde arriskua, hoditeriak gainezka egitea, malda ezegonkor arriskutsuak), eta horiei aurre egiteko neurriak hartzea (bertako zuhaitzak landatzea...).
- Basogintza: Kanpoko zuhaitz espezieen monokultibo intentsibo ekonomizista oinarri duen erredua gainditu, eta bertako espezieak berreskuratzea bultzatu. Lursailak eskuratu eta bertako espezieak birlandatu.
- Erabilpen publikoko parkeak hobetu eta berriak sortu: Miserikordia Zaharra, Zabalarreta, Elosegi, San Esteban, Ibaiondo kalearen gainaldea...
- Baratze parkeen eskaintza handitu.

Hondakinen kudeaketa

Tolosa garbiagoa lortu eta hondakinen kudeaketa hobetu nahi dugu. Hiru ardatz landuko ditugu: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea. Eta helburu hori lortzeko, baliozkoa den egitasmo oro abiatuko dugu.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Kontzientzia pizteko kanpainak egin eta herritarroi arduraz jokatzeko erraztasunak eta tresnak eskaini. Hondakinen kudeaketaren gaineko informazio argia eta zehatza eman, ikastaroak antolatu auzo zein ikastetxeetan, zakarrontzien kokalekuetan panelak eta zabor-ontzi ondoko aholkulariak.
- Kale garbiak ekimena martxan jarri. Hondakinen edukiontzia eta inguruak txukun mantendu, eta herriko parkeetan, bankuetan... pilatzen den zikinkeria ekiditeko neurriak hartu.
- Hondakin gutxiago sortu, eta sailkatutakoaren kalitatea hobetzeko neurriak hartu. Plan bereziak ezarri garai berezietarako (inauteriak, festak eta Eguberriak).
- Erabilera bakarreko plastikoarekin bukatzeko neurriak.
- Sortzaile bereziei (merkatari eta ostalariak) hondakinen bilketa zuzena eta gaikako bilketa integral adostua.
- Tamaina handiko hondakinak (altzariak, etxetresna elektrikoak...) etxez-etxe jasotzeko zerbitzua.
- Hondakin berezien bilketa egiteko etxola berria Alde Zaharrean.
- Auzo-konposta bultzatu, puntuen mantentzea hobetu eta gehiago jarriz, Alde Zaharrean adibidez.
- Txakurrentzat gune berriak eta erosoak: kale garbiketa arazoak ekidin eta txakurrek gune egokiak izan ditzaten.

Lehen sektorea eta elikadura

Elikadura menpektasuna da herri honetan dugun zaugarritasun handietako bat. EAEn kontsumitzen ditugun elikagaiak, batzaz beste, 3.000 kilometro egiten dituzte platerera iritsi orduko, eta elikadura subiranotasuna ez da %5era iristen. Tokiko elikadura praktikak ez dira kontsumo ariketa soilak, osasunari, ekonomiari edo lurraldeari eragiten baitiote zuzen- zuzenean. Kinka larrian jarri dute sektorea kontsumo eredu berriak, belaunaldi arteko errelebo faltak, erregai eta horniduren garestitzeak eta klima aldaketak.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Elikadura burujabetza handitzeko, Eskualdeko Elikadura Mahaia osatu, bertako produktuen ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko; Tolosaldea Garatzen, Tolomendi, Elikar eta lehen sektoreko eragileen arteko elkarlana bultzatu.
- Tolosako lehen sektorea eta azoka indartu.
- Agroekologiaren garapenerako landa lur ez urbanizagarrien identifikazioa eta azterketa; baserritar emakume zein gizonen dedikazioa profesionala bermatu; elikagai ekoizpen nahikoa eta eskuragarria bultzatu, eta elikadura eredu iraunkorriari lotutako balio kate osoa hobetu (transformazioa, distribuzioa, komertzioa, ostalaritza...).
- Jantoki kolektiboetan, bertako elikagaiak kontsumitzea sustatu.
- Elikagaiak xahutzearen aurkako neurriak jarriko ditugu martxan, Tolosaldea Garatzenek hasitako proiektuari jarraipena emanez.

Merkataritza

Merkataritza indartzeko, Herri Hitzarmena bultzatuko dugu, herriko denden saretzea sustatu eta kontsumo behar guztiak asebeteko dituen merkataritza-gune irekia sortuz. Tolosa, kalitatezko merkataritza gunea izateko estrategia landuko dugu. Tolosa gastronomiarekin identifikatzen den bezala, komertzioaren kalitateagatik ezaguna izan dadin lan egingo dugu.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Erosketak egitera etorri eta erdigunetik kanpo aparkatzen dutenak saritu; erosketak etxetara edo/eta kanpoko aparkalekuetara eramateko sistemak aztertu; erosketak gordetzeko takilak jarri.
- Gazteen erosketa ohituren gaineko azterketa egin, eta kontzientziario kanpainak abian jarri, ikastetxeetan lantzeko unitate didaktiko batekin batera.
- Lokal hutsak eskuragarri jarri ekintzaileei.
- Merkataritza suspertzeko neurri bereziak alde zaharrean; “Kale biziak” proiektua.
- Digitalizazioan aholkularitza eta laguntza teknikoak: Txanpon lokal digitala, erakusleio digitalak...
- Azoka berezien inpaktu sozioekonomikoa aztertu, eta merkataritzan eragin positiboa izan dezaten eraldatu.
- Artisau ofizioak berreskuratzea.

Garapen ekonomikoa

Tolosa eskualde buru izan arren, eskualdea da tokiko garapenerako eragilea. Horregatik, garapen ekonomikoa sustatzeko, erreferentziazko tresna Tolosaldea Garatzen izan behar du. Egun eskaintzen dituen zerbitzuak indartu eta lerro berriak irekitzeko aukerak aztertzeko, Tolosako Udalararen inplikazioa handituko dugu, ondorengo helburuekin:

1. Enplegua sustatzea, eta langabeei aholkularitza zerbitzua ematea.
2. Enpresen dibertsifikazioa, saretzea, modernizazioa eta digitalizazioa sustatzea.
3. Formakuntza zikloak lan mundura bideratzeko bitartekaritza lanak egitea.
4. Ekintzaitza eta autoenpleguari bultzada ematea.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Herrian ahalegin berezia egingo dugu bertako komertzioa babesteko.
- Lurraldean sustraitutako enpresei laguntzea.
- Enpresak sozialki arduratsuak izan daitezen eragin: Lurraldearekiko ardura eta konpromisoa, proaktibitatea, inplikazio komunitarioa, berrikuntza soziala eta balore aurrerakoak (elkartasuna, justizia, berdintasuna, zaintza, generoa, ingurumena).
- Aktibitate ekonomiko berriak sustatu: deskarbonizazioa, digitalizazioa, zaintza, elikadura, ekonomia zirkularra.
- Koopfabriken eredia Tolosara ekartzeko azterketa egin..

- Lurralde kohesioa eta banaketa ekitatiboa landu; Apatta II estrategikoa izango da.

Gizarte politikak eta babes egitura sozialak eta komunitarioak

Gure programaren abiapuntua eta ardatza da pertsonak erdigunean jartzea; tolosar guztiok bizi baldintza duinak garatzeko eskubidea bermatu behar dugu; komunitate sendo bat eraikitzeko, egoera zaugarrienean dauden pertsonen etorkizunerako aukerak eta ziurtasunak eskaini behar dizkiegu ziurgabetasun aro honetan.

Komunitate zentzua eta elkarren arteko zaintza aldarrikatu nahi dugu, etorkizuna haustura sozialik gabekoa izan dadin babes kolektiborako mekanismoak indartuz, asistentzialismo hutsetik haratago. Pertsona zaugarriekin garatutako programa integralak, inklusio sozialari ateak zabalduko dizkioten eremuak landuz.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Udaleko gizarte zerbitzuak, eskolak, osasun sistemako langileak, herriko elkartegintza eta elkartasuna aktibatuzera zuzendutako gizarte zibil antolatua. Eskema publiko-komunitario eraginkorra sortu, zaugarritasun egoerak detektatu eta laguntza materiala bideratzeko.
- Herriaren diagnostiko soziala: Tolosarron egoera zehazki ezagutu, hartu beharreko neurriak modu eraginkorrean hartzeko.
- Udalak eragile eta elkarrekin harreman zuzen eta iraunkorra izateko, koordinazio foroa sustatu (eskolak, gizarte zerbitzuak, osasun sistema, Caritas, Jatorkin, Zutani...).

- Pandemia garaian herritik modu espontaneoan sortu zen “Zaintza Sarea Tolosa” boluntario taldearekin harremanak berrabiarazi, eta talde honen aktibaziorako beharrezko neurriak hartu.
- Pertsonak komunitatean txertatzen laguntzeko neurriak: formakuntza, lan aukera berriak, garapen pertsonala, harreman sozialak bideratu.
- Justizia sozialaren aldarria lehen lerrora ekarri.
- Gizarte laguntzen gainean entzuten diren esamesa faltuen aurrean, “Zurrumurruei stop” bezalako ekimenak abian jarri, eta sentsibilizazio kanpainak egin.
- Adinekoen parte-hartzea eta integrazioa sustatu.
- Adinekoen bakardadeari aurre egiteko estrategia landu.
- Osasun Mentalaren eta Suizidioaren Prebentziorako Programa garatu.
- Ongizate emozionaleko egoeraren diagnostikoa egin.
- Abegi etxearen kudeaketan boluntarioen papera bermatu.
- LGTBIQ+ pertsonen diskriminazio egoeren behatokia egin.

Zaintza

Autonomia murriztua duten zein laguntza behar duten pertsonen ahalik eta baldintza egokienetan bizitza proiektua garatzen laguntzeko baliabide guztiak aztertu (publikoak, beste zerbitzuak eta komunitarioak), eta behar horien zerbitzura antolatzea da gakoa; mendekotasuna duten pertsonak etxetik edo haien ingurune hurbiletatik ahalik eta gertuen artatzeko, premia bakoitzari egokitzen zaion aukera eskainiz. Jendearen bizi proiektuetan hausturarik eragingo ez duen zaintza eredu behar dugu. Zahar egoitzen eredu irauli behar dugu, zaintza etxeetan izatea ahalbidetuz, edo, gutxienez, etxean bezala senti gaitzela.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Zainduak eta zaintzaileek komunitateko kide izateko espazioa eta aukera izan behar dute.
- Eremu soziala, boluntarioak, bizilagunak, herrikideen harremanak, borondatek datorren zaintza integratu behar da oraingo sisteman.
- Zaintzaren inguruko diagnostikoa: familia eremuetan eta esparru instituzionalean. Egoera irregularrean dihardutenak ere kontuan hartuko ditugu, eta haien egoera erregularizatzeko eta hobetzeko plana egingo dugu.
- Zaintza mahaia sortzeko pausoak bideratu.
- Zaintzen eta etxeko lanen garrantzia aldarrikatzen dugu, jarduera ekonomiko bezala aintzat hartu, duintasuna eskaini eta gizonen jarduera ere badela azpimarratu.
- Zaintza lanak egiten dituzten gehienak emakumeak eta etorkinak izanik, modu prekarioan jarduten dute askotan. Zaintzaileak zaindu, duindu eta prekarizatzetik atera behar dira.
- Zaintzaileen zaintza egitasmoen bidez, ordaindutako zein ordaindugabeko zaintzaileak babesteko programak.

Berdintasuna

Egiten dugun langutzia mugimendu feministarekin elkarlanean egingo dugu. Gobernantza feminista ardatz, Feminismoaren zeharkakotasuna eta genero ikuspegi txertatuko ditugu alor guztietan: fiskalitatea, aurrekontuak, hirigintza, kultura, kirola, festak...

Andragora Tolosaldeako Emakumeen Etxearen funtzionamenduan laguntzeko behar diren baliabideak eskainiko ditugu. Emakumeen etxea ez da soilik topagune huts bat, gune garrantzitsua da sareak sortzeko, aholkularitza jasotzeko, indarkeria matxistatik gabeko bizikidetzak sustatzeko, emakumeen ahalduntzea, partehartzea eta presentzia lantzeko, eztabaida, hausnarketa eta aldaketak ikuspegi feministatik pizteko.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Sexu-generoagatiko desberdintasuna gainditzeko estrategiak. Ezin da komunitate bat eraiki, komunitate horren zati batek ez baditu eskubide eta aukera berberak.
- Mugimendu feministaren eta emakumeen elkarrekin parte-hartzea bultzatuko dugu bizitza politikoan.
- Gizarte osoaren formakuntza, genero estereotipoak gainditzeko.
- Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko neurriak. Gure gizartean bizi dugun drama ikaragarria da, eta denon artean irauli behar dugu egoera hau.

Kultura

Kultur eskaintzak, herritarren garapenerako ezinbesteko elementu dira, eta, gure kasuan, euskara eta euskal kulturaren ur emariaren sorburu dira. Horregatik, ezinbestekoa da kulturaren bizi iraupena eta garapena bermatzeko plan bat garatzea eta martxan jartzea.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Eraikin publikoak berrantolatzea: liburutegia, ikasgela berriak, gela balioanitzak, ikasgelak, musika eskola, euskaltegia, eragileak, ikastaroak...
- Egun ditugun azpiegitura kulturalen erabilera aukera berriak aztertu (Leidor, Zezen plaza...).
- Tolosan dagoen ekintzazailtza kulturala zaintzen eta bide ematen jarraitu.
- Gazte, langabetu eta pentsionistei kultur kontsumorako erraztasunak eman, eta tailer zein ekitaldietako prezioak egokitu.
- Artearen adierazpen ezberdinekiko zaletasuna handitzeko ekimenak bultzatu, eta baldintzak jarri, artea denon eskuragarri izan dadin. Entsegu lokalen eskaintza ere handituko dugu.
- Emakumeen sorkuntza lanak ikusarazteko bideak jarri. Ziklo, mintegi, jardunaldi bereziak antolatu.
- Kultur bilgunea: herriko eragile kulturalak biltzen dituen espazioa izango da, eta herriko bizitza kulturala dinamizatzea du helburu, elkarlan publiko-komunitarioaren bidez.

Euskara

Euskararen arnaguneak galtzen ari gara, eta hori oso kezagarria da ikuspegi soziolinguistikotik. Gainera, euskararen kontrako eraso judizialek arazoa areagotzen dute. Horregatik, udalerrietan hizkuntza politika aurreratuak garatzeko ahalegina biderkatzeko unea da, herri itun berri baten bidez.

Euskararen erabilerak eta trinkotasunak atzera egin badute, arrazoi sozioekonomikoengatik, urbanistikoengatik eta demografikoengatik da gehienbat; beraz, tokian-tokian egokiak diren hizkuntza politika argi eta sendoak aplikatu behar ditugu.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Etorri berrientzako euskara eta euskal kultura bereganatzeko estrategia landu, eta euskara ikasteko dohakotasuna bultzatu.
- Haur eta gazteen aisialdi eskaintza osoa euskaraz eskaini, eta gainontzeko kultur eta aisialdi eskaintza, gutxienez herriko euskara ezagutza tasaren bezainbesteko kopuruan.
- Udalak herritarrei administrazioarekin euskaraz aritzeko eskubidea bermatu, eta gainontzeko instituzioekin harremana euskaraz gauzatu.
- Tolosan dauden jatorri eta kultura ezberdinen arteko topaguneak bultzatu. Kanpotik datozenentzat euskara integrazio hizkuntza izan behar du.
- Erabileran, bost alor, bost geruza ditugu: familia, lagunartea, espazio soziala (kalea, lantokia, eskola...), komunikabideak eta Internet, eta aisialdia. Guztietan eragin behar dugu erabilera datuek gora egitea nahi badugu.

Osasuna

Osasungintza krisian dago. Krisira eraman dute. Tolosan hainbat arazo ditugu: ospitale publikoaren falta, hainbat zerbitzuen pribatizazioa eta lehen arretaren kaskartzea. Eskumena Udalarena ez izan arren, Ospitale Publikoaren gaian, EAJri eskualdean ospitale publikoa egiteko presioa eta erabateko gardentasuna eskatzen jarraituko dugu. Alkatetzatik osasun sailburuarekin bilduko gara gardentasun ariketa bat eskatzeko.

Arazo horiei aurre egiteko soluzio-bideak eskatzen jarraituko dugu, eta, bestetik, osasun komunitarioaren kontzeptua garatzen jarraituko dugu, berariazko plana eginez.

Kirola

Edozein pertsonak kirola/ariketa fisikoa egiteko eskubidea bermatu behar dugu, eta kirola osasun eta hazkuntza pertsonalaren motorra izatea lortu. Bizitza aktiboa sustatuko dugu herritarron artean.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Kirol instalazioak bere erabileraren muga daude. Horiek berraztertu behar dira, eta instalazio berrien aukerak aztertu.
- Kirol taldeen estruktura profesionalizatzen lagundu behar dugu, hemen ere eredu publiko komunitarioa bultzatuz.
- Herriko kirol proiektu pedagogikoa garatu nahi dugu eragile guztien artean.
- Eskola kirolaren izaera hezitzailea indartu, eta estruktura finkatu, ikasle guztiek egiteko aukera izan dezaten.
- Parke zein herriko beste espazioetan ariketa fisikoa egiteko azpiegiturak jarri.

Hezkuntza

Hezkuntza ereduak izan behar du ez segregatzailea, doakoa, marko propioa duena, laikoa eta kalitatezkoa. Euskal Eskola Publikoa denon artean eraiki nahi dugu.

EH Bilduren hezkuntza proposamenean jasotzen den bezala, sistema deszentralizatu baten alde egiten dugu, ikaslea erdigunean jarriz eta ikasleak behar duen heziketa prozesuaren nolakotasunean arreta ipiniz. Beraz, ikastetxeen hormak gainditu, eta herriarekin bat egiten duen ekosistema kooperatiboetan oinarritutako herri mailako proiektu hezitzailea osatu behar dugu. Ekosistema horien organo nagusietako bat Udal Hezkuntza Kontseilua izango da.

Ildo orokorrak eta neurriak:

- Ekosistema kooperatiboek gizarte kohesioa lantzeko joko-zelai paregabea eskaintzen digute.
- Udal Hezkuntza Kontseiluaren eginkizunak: eskola eskaintzaren banaketa, ikasleen eskolaratze orekatu baterako neurriak hartzea, herri proiektu hezitzaile baten atalak jorratzea, eskolaz kanpoko eskaintza hezitzaile, integratu eta integrala osatzea, eta kurrikulum lokala egitea.
- Tolosako herriaren unitate didaktikoak: Euskal Pizkundea, inauteriak... herriaren ezagutza sustatzeko.
- Euskara, segregazioari aurre egiteko, eta integrazioarako tresna nagusia: Euskaratik eta euskaraz. Kanpotik datozen ikasleei begirako harrera protokolo egokiak garatu.
- Interes publikoarekin konprometitutako ikastetxeen arteko herri mailako kooperazioak euskal hezkuntzagintzaren fase berri baten oinarria jarriko luke, historikoak izan diren zatiketak gainditzeko eta ortzi-muga berri bat marrazteko.